

Ikastolen Etxean, 2023ko abenduaren 13an

PRENTSA OHARRA

LEGE PROIEKTUA DAGOEN MODUAN ONARTZEN BADA, EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA ERALDATZEKO AUKERA GALDUKO DUGU

Ikastolen mugimenduak eremu desberdinetan proposamen propioak lantzen jarraituko du, hezkuntza sistemari eta gizarteari ekarpena eginez, eta Euskal Hezkuntza Sistema propioa eta eraldatzailea aldarrikatuz.

Ikastolek, etorkizunari begiratu ez ezik, ekainean ospatuko dute Euskal Herriko Ikastolen VII Batzarra eta bertan zehaztuko dituzte datozen urteetarako estrategia eta ildo nagusiak.

Idatzi honen helburua Azaroaren 29an Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean onartu den Hezkuntza Lege proiektuaren irizpenaren aurrean Ikastolen Elkarteak egin duen balorazioaren berri ematea da. Lehen balorazio moduan, eta lege proiektua dagoen moduan onartzen bada, esan dezakegu **“aukera galdua”** izan dela iruditzen zaigula.

Aurreko agerraldia nola bukatu genuen gogora ekarri nahi dugu hitzez hitz: **“Galdu ezin dugun aukera baten aurrean gaude eta hezkuntza eragileon ekarpenak kontuan hartzeko eskatzen diegu alderdi politikoei eta hezkuntza sistemak behar duen benetako eraldaketari ausardiz heltzeko.”**

Ikastolen Elkarteak **aspalditik aldarrikatu izan du lege berri bat behar dugula**, hezkuntza sistema osoa arautuko duen lege bat behar dugula.

Hezkuntza sistemaren egoerak eraman gaitu eragile gehienoi diagnostikoan bat egitera: **Euskal Herriko hezkuntza sistemek errotiko eraldaketa behar dute eremu guztietan: euskararenean, pedagogikoan zein antolaketan.** Eta uste genuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Lege berri hau eraldaketa hori emateko oinarri sendo bat ezartzeko markoa izango zela. Oinarria eraldaketarako eta abiapuntua hezkuntza sistema propio baterako. Ikastolen Elkarteak ez du hezkuntza legea helburu, abiapuntutzat jotzen dugu. Hori bai, ahalik eta lege onena eta zehatzena nahi dugu.

Bi urte luze ibili gara hezkuntza legearen inguruan gogoetatzen, eztabaidatzen, biltzen... **Galdu ezinezko aukera baten moduan irudikatu dugulako prozesu hau.** Edozein

herrirentzat estrategikoa den gai baten da hau, datozen belaunaldien etorkizuna baldintzatuko duena.

Ikastolen Elkartea **prozesu honen hastapenetik eragile aktibo izan da**. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Hezkuntza sistema osoa arautuko duen legea izanik, guk geuk gure ekarpena egin behar genuela uste genuen eta hala jokatu dugu. **Irakurketa kritiko eraikitzaileak egin ditugu, bai eta prozesuaren bukaera arte ekarpenak egin ere.**

2022ko apirileko Hezkuntza akordioak itxaropenerako bidea ireki zuen, alderdien artean zerbait berria eraikitzeko borondatea bazegoela sinistu genuen eta iruditzen zaigu ausardia erakutsi zutela publikotasun berri baten definizioan zein euskararen normalkuntzaren bidean.. **Bidea luzea izan da, eta ausardiak indarra galdu duela uste dugu. Aurrerapausoak eman beharrean, gainera, zenbait gaitan geldirik geratu edo atzeraka joan garela uste dugu.**

Maiatzean, orduan aurkeztutako **lege aurreproiektuaren balorazioa egin genuen**, eta balekoa zela aipatu genuen. **“Aukera esanguratsuak”** jasotzen zituela esan genuen: ikasleek eskuratu beharreko hizkuntza-komunikaziorako gaitasun maila(k) zehaztea, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren (EHZP) sorrera, definizioa eta parte izateko bete beharreko baldintza eta konpromisoak akordioan bertan jasota egotea, edota segregazioa ekiditeko proposamenak zehaztea besteak beste; baina orduan **“gabezia ugari”** zituela ere azpimarratu genuen. Halere, prozesuak artean zabalik jarraitzen zuela eta hainbat gai bideratzeko aukera bazegoela uste izan dugu orain arte.

Beraz, zergatik diogu, orain, aukera galdua izan dela?

1.- Euskara, euskal kultura eta Euskal Curriculum

Murgiltze eredu orokortua lortzeko zehaztasunik ez eta berriro ere hizkuntza ereduak jaso dira lege proiektuan.

Euskararen alorrean, azken hamarkadetan egindako ibilbidearen ondorioak argiak dira, eta hala ondorioztatu dugu hezkuntza eragile nagusiok adostasunez: **hizkuntza ereduak ez dute euskalduntzen eta horiek gaindituko dituen eredia behar dugu oinarri**. Datuek egiaztatzen dute hizkuntza ereduaren logikak ez duela balio egun hezkuntzan dugun errealitate soziolinguistikoari erantzuteko eta, noski, ez dira baliagarri lege aurreproiektuan zehazten diren helburuak erdiesteko.

Euskal Herriko Ikastoletan murgiltze eredia ezarrita dugu, berau delako ondorengo belaunaldiak euskalduntzeko bidean emaitza onenak ematen dituen eredia.

Euskara gizarte kohesiorako, berdintasunerako eta justizia sozialerako ezinbesteko osagaia dela ulertzen dugu, eta ereduaren izaera baztertzailerak segregazio egoerak areagotu besterik ez ditu egiten.

Ikaskuntza-hizkuntza guztien izaera bideratzailea aipatzen duen xedapen gehigarriak ere kezka sortu digu. Izan ere, gure jendartearen errealitatea da **euskara hizkuntza minorizatua dela, eta egoera horretan ezin dira hizkuntza guztiak era parekatuan**

tratatu, berdin tratatzeak minorizatua den hizkuntza baztertzea, diglosia betikotzea, baitakar.

Atal honetan Euskal Curriculuma ere aipatu nahi dugu. Lege aurreproiektuan **ez da ageri Euskal Curriculum, ezta Euskal Curriculumean ardaztutako hezkuntza sistema bat eraikitzeko premiarik ere**. Ikastolen elkartearen ustez, ordea, ezin da Hezkuntza Lege bat eraiki Euskal Curriculumari aipamenik egin gabe. Honen ondorioz, euskal kulturaren transmisiorako behar diren tresnak ezin izango dira behar bezala garatu.

2. Gobernantza eredua: publiko-pribatua dikotomia eta Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren definizioa

Atal honetan, gure ustez, ausardia falta dago. Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren inguruan **zehaztapen sakonagoa falta da**. Hala, ez da bermatzen Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren barruan egongo diren **ikastetxe guztiak baldintza beretan** arituko direla. Honetaz gain, **Zerbitzuaren parte izango diren ikastetxeen betebeharrak ez dira zehaztasunez aipatzen**. Eta **honek publiko-pribatu dikotomia betikotzeko arriskua sortzen du**.

Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren kontzeptuarekin bat egiten dugu, Euskal Herrian orain arte egon diren hezkuntza tradizio nagusien aitortzarako bide izan daitekeelako. Baina guk ez dugu erabat berdin ulertzen Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren garapena.

Beraz, lege berri honek 1993ko Eskola Publikoaren Legearen aldean urrats egingo baditu ere, zentzu horretan **ausartagoa** izan behar duela iruditzen zaigu.

Ulertezina da etorkizun hurbilean gertu beharreko eskola-maparen eraldaketa dela eta, **titularitate desberdina duten ikastetxeen arteko esperimentazioari ateak ixtea alegia**, uste baitugu publikotasun eredu propiorantz abiapuntu izan zitekeela.

Horiekin batera, **doakotasunerako bideak, aurrekontuak eta baliabideak zehazteko bideak jaso ez izanak ere kezka eragin dugu**.

3. Euskal Herria bere osotasunean ahalbideratzeko politikak

Euskal Herria hiru administrazio desberdinen pean dagoela jakinik, beharrezko ikusten dugu lurraldeen arteko harremanak eta lankidetzak sustatzeko **legez araututako tresnak sortzea**. Horregatik, ulergaitza egin zaigu Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren parte diren ikastetxeen eta Euskal Herriko gainerako lurraldeetan euskara eta euskal kultura ardatz duten ikastetxeen arteko harremanak eta proiektuak sustatzeari edota elkarlana bultzatzeko asmoz **Europa mailako partzuergoa eratzeko proposamenari ateak itxi izana**. Egungo errealitatetik abiatuta, Euskal Herri osoan hezkuntza sistema propioa eraikitzen hasteko aukera irekiko zuketarik.

Arestian esan dugunarekin, argi dago **orain onartuko den Hezkuntza Legeak ez duela asetzen 2022an ikastoletan piztutako itzaropena.**

Aitortu behar dugu bide berri batzuk ahalbideratzen direla, eta legeak emango dituen aukera horietan sakonduko dugu, noski, eta gure proposamenak landuko ditugu. Bidea ireki ez zaien gaientzat, berriz, marko legala aldarrikatzen jarraituko dugu. Horren faltan, orain arte bezala, Ikastolen mugimenduak eremu desberdinetan proposamen propioak lantzen jarraituko du, hezkuntza sistemari eta gizarteari ekarpena eginez, Euskal Hezkuntza Sistema propio eta desberdin bat aldarrikatuz eta bide horretan ahaleginak eginez.

Etorkizunean jarri nahi dugu, beraz, begirada, gizarteari egingo diogun ekarpen horretan. Datorren urtean egingo dugun Euskal Herriko Ikastolen VII Batzarrean zehaztuko ditugu datozen urteetarako gure ildoak eta egin nahi dugun ekarpena.

Ikastolen Etxea, 13 de diciembre de 2023

NOTA DE PRENSA

SI EL PROYECTO DE LEY SE APRUEBA TAL COMO ESTÁ, PERDEREMOS LA OPORTUNIDAD DE TRANSFORMAR EL SISTEMA EDUCATIVO VASCO

El movimiento de las ikastolas seguirá trabajando propuestas propias en los diferentes ámbitos que les competen, aportando así sus valores al sistema educativo y a la sociedad, reivindicando un Sistema Educativo Vasco propio y transformador.

Las ikastolas miran ya al futuro cercano y celebrarán en junio la VII Asamblea de las Ikastolas de Euskal Herria, donde definirán sus estrategias y líneas generales de actuación para los próximos años.

El objetivo de este comunicado es informaros de la valoración realizada por Ikastolen Elkartea sobre el dictamen del proyecto de Ley de Educación aprobado el pasado 29 de noviembre en la Comisión de Educación del Parlamento Vasco. A modo de primera valoración, y si el proyecto de ley se aprueba tal y como está, podemos decir que nos parece que ha sido una oportunidad perdida.

Ikastolen Elkartea viene reivindicando desde hace tiempo que necesitamos una nueva ley, una ley que regule todo el sistema educativo.

La situación del sistema educativo nos ha llevado a la mayoría de agentes a coincidir en el diagnóstico: los sistemas educativos de Euskal Herria necesitan una transformación radical en todos los ámbitos: en el del euskera, en el pedagógico y en el organizativo. Y pensábamos que esta nueva Ley para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa iba a ser el marco para sentar una base sólida sobre la que dar esa transformación. Base para la transformación y punto de partida para un sistema educativo propio. Ikastolen Elkartea no tiene como objetivo final la ley de educación, la consideramos un punto de partida. Eso sí, queremos la mejor ley y más precisa posible. Durante dos largos años hemos reflexionado, debatido, sobre la ley de educación, nos hemos reunido, hemos hecho propuestas... Porque hemos considerado este proceso como una oportunidad que no

se podía perder. Ésta es una cuestión estratégica para cualquier pueblo, y que condicionará el futuro de las generaciones venideras.

Ikastolen Elkartea ha sido un agente activo desde el inicio de este proceso. Siendo la ley que va a regular todo el sistema educativo de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, nosotros mismos creíamos que teníamos el deber de hacer nuestra aportación y así hemos actuado. Hemos realizado lecturas críticas constructivas y aportaciones hasta el final del proceso.

El acuerdo de Educación de abril de 2022 abrió el camino a la esperanza, creímos que había voluntad de construir algo nuevo entre los partidos políticos y nos parece que mostraron una valentía enorme los partidos que firmaron el Acuerdo de Educación. El camino ha sido largo y creemos que durante el mismo esa valentía ha perdido fuelle. Y en lugar de dar pasos hacia adelante, creemos que en algunas cuestiones nos hemos quedado estancados o hemos ido hacia atrás.

En el mes de mayo realizamos una valoración del anteproyecto de Ley entonces presentado, mencionando su validez. Dijimos que contemplaba oportunidades significativas como la determinación del nivel o niveles de competencia en comunicación lingüística a adquirir por el alumnado, la creación del Servicio Público Vasco de Educación, su definición y los requisitos y compromisos que se debían cumplir para formar parte del mismo, o la concreción de propuestas para evitar la segregación, entre otras; pero también se subrayó que entonces tenía muchas carencias. Sin embargo, hasta ahora hemos considerado que el proceso seguía abierto y que se podían encauzar varios temas pendientes.

Por tanto, ¿por qué decimos, ahora, que ha sido una oportunidad perdida?

1. Euskera, cultura vasca y Currículum Vasco

Por una parte, no ha habido concreción en la consecución del modelo de inmersión generalizada, y, por otra, se han vuelto a incluir en el proyecto de ley los modelos lingüísticos.

En el ámbito del euskera, las consecuencias de la trayectoria de los modelos lingüísticos en las últimas décadas son claras, y así lo hemos llegado a concluir de común acuerdo los principales agentes educativos: los modelos lingüísticos no euskaldunizan y necesitamos un modelo que los supere. Los datos constatan que la lógica de los modelos lingüísticos no sirve para responder a la realidad sociolingüística actual de la educación y, por supuesto, no sirven para alcanzar los objetivos que se definen en el anteproyecto de ley.

Entendemos que el euskera es un elemento indispensable para la cohesión social, la igualdad y la justicia social, y el carácter excluyente de los modelos no hace sino acentuar las situaciones de segregación.

También nos preocupa la disposición adicional que alude al carácter facilitador de todas las lenguas de aprendizaje. Y es que la realidad de nuestra sociedad es que el euskera es una lengua minorizada, y en esa situación no se pueden tratar todas las lenguas de forma igualitaria, porque tratarlas por igual implica perjudicar la lengua minorizada, perpetuar la diglosia.

Queremos mencionar, también, el Currículum Vasco. En el anteproyecto de Ley no figura el Currículo Vasco ni la necesidad de construir un sistema educativo centrado en el Currículum Vasco. Nosotros, sin embargo, consideramos que no se puede construir una Ley de Educación sin hacer referencia al Currículum Vasco. En consecuencia, no podrán desarrollarse adecuadamente las herramientas necesarias para la transmisión de la cultura vasca.

2. Modelo de gobernanza: dicotomía público-privada y definición del Servicio Público Educativo

En este apartado, creemos que hay una falta de valentía. Falta una concreción más profunda sobre el Servicio Público de Educación. Así, no se garantiza que todos los centros integrados en el Servicio Público de Educación actúen en las mismas condiciones. Además, no se hace referencia detallada a las obligaciones de los centros que van a formar parte del Servicio. Y esto crea el riesgo de perpetuar la dicotomía público-privada.

Compartimos el concepto de Servicio Público Educativo, que puede servir de cauce para el reconocimiento de las principales tradiciones educativas que han existido hasta ahora en el País Vasco. Pero nosotros no entendemos del todo igual el desarrollo del Servicio Público de Educación.

Por tanto, si bien esta nueva ley va a dar pasos importantes respecto a la Ley de Escuela Pública de 1993, nos parece que debe ser más valiente en este sentido.

Nos cuesta entender que en un futuro próximo se cierre la puerta a la experimentación entre centros con distinta titularidad, porque creemos que podía ser un punto de partida hacia un modelo propio de lo público.

Junto a ellos, también nos ha causado preocupación el hecho de que no se hayan recogido en el anteproyecto de ley las vías para la gratuidad educativa, ni las vías para definir presupuestos y recursos.

3. El concepto Euskal Herria e instrumentos legales que los posibiliten.

Conscientes de que Euskal Herria está bajo tres administraciones diferentes, consideramos necesario crear instrumentos legales para promover las relaciones y

colaboraciones interterritoriales. Por ello, nos resulta incomprensible que se haya cerrado la puerta a la creación de un consorcio europeo en el ámbito educativo y a impulsar proyectos y relaciones entre los centros que forman parte del Servicio Vasco de Educación y los centros del resto Euskal Herria que tienen como eje el euskera y la cultura vasca. Ambas iniciativas hubieran abierto la posibilidad de iniciar la construcción de un sistema educativo propio en toda Euskal Herria partiendo de la realidad actual.

4. Conclusiones y perspectivas de futuro

Con lo dicho anteriormente, es evidente que la futura Ley de Educación no satisface la expectativa suscitada en las ikastolas en 2022.

Tenemos que reconocer que se posibilitan nuevos caminos y, por supuesto, profundizaremos en las nuevas posibilidades que nos pueda brindar la nueva ley. En cambio, seguiremos reivindicando un marco legal para aquellos temas a los que no se les ha abierto camino.

A falta de ello, tal y como hemos venido haciendo hasta ahora, desde el movimiento de las Ikastolas seguiremos trabajando en propuestas propias en los diferentes ámbitos, ofreciéndoselas al sistema educativo y a la sociedad, reivindicando un Sistema Educativo Vasco propio y diferente y esforzándonos en ese camino.

Queremos, pues, poner la mirada en el futuro, en esa aportación que vamos a hacer a la sociedad. Será en la VII Asamblea de las Ikastolas de Euskal Herria que celebraremos

el año que viene donde definiremos nuestras líneas y la aportación que queremos hacer para los próximos años.